

# Nafarkaria

• ostirala • 2000ko irailaren 22a


**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Leitza** • Gizarte Zerbitzuak osasunari buruzko ikastaroak abiatu ditu

**Baigorri** • Nafarroako ohiturak ikusgai Etxauzko jauregian



• IÑAKI VERGARA

# Kaleak, oinezkoentzat

Oinezkoentzat, txirrindularientzat eta garraio publikoarentzat izanen dira gaur Iruñeko karririk. Autorik Gabeko Eguna da gaur; autoa gutxiago erabili ahal dela erakusteko eguna batzuentzat, irudi kanpaina ofiziala besteentzat. Modu batez edo bestez, Iruñerrian trafikoaren arazoari irtenbidea eman behar zaiola ikusteko eguna izanen da gaurkoa.

# Leitza • Osasunari buruzko hizketaldiak

Gizarte Zerbitzuak antolaturik, hainbat ikastaro izanen dira

**Menopausia, elikadura eta sexualitateari buruzko arazo eta galderak argitu nahian ikastaroak egingen dituzte Leitza aldean.**

**I**KASTURTE BERRIA ORAIN dela egun batzuk zabaldu dute ikastetxe guztietan gazteenek, baino laister hain gazteak ez direnek ere izanen dutezer ikasi eta zer egin Gizarte Zerbitzuak antolatuta. Izan ere, egun hauetan, Leitza eta Aresoko emakumeak Menopausiari buruzko hizketaldiak dituzte antolatuta. Joan den astean, irailaren 11n, hasi ziren Leitza eta hil honen 25ean amaituko dira hiru saiotan eskaini dizkieten azalpenak. Berdin gertatuko da Areson; izan ere, bertan 12an izan zuten lehenengo saioa, 19an iritsi zen bigarrena, eta azkena berriz 27an izanen da.

Osasun Departamentutik dirulaguntza jaso du Leitza aldeko Gizarte Zerbitzuak, eta, Junkal Otxotorena bertako teknikariak dionez, interesgarria iruditu zaie tailer hau antolatzea. Kezka guztiak azaltzeko aukera ez izan arren, oso aproposa dela azpimarratu du, askotan sortzen diren beldurrei aurre egiteko eta, batez ere, informazioa lortzeko izaten diren aldaketak ezagutzeko eta ikarak alde batera uzteko.



Neskato bat informazio galdezka sexuari buruzko ihardunaldi batzuetan, argibideak emate aldera jarritako stand batean • MONIKA DEL VALLE

Martxan dagoen hiru hizketaldiko tailer hau ez da bakarra izanen, proiektu gehiago aurrera ateratzeko aukera baitute Gizarte Zerbitzukoek jasotako dirulaguntzari esker. Horien artean, urtean zehar eskainiko dituzten beste hainbat hizketaldi edo ikastaro. Hurrengo hilabeteetan eskainiko dituztenak zehaztuta dauzka dagoeneko Junkalek. Menopausiarena izanen da lehena, eta ondoren elikadurari buruz eta sexualitateari buruz gauza berriak ikasteko aukera izanen dute.

Anorexia eta bulimia gaixotasuneei buruz hitz egiteko asmoa dutela azpimarratu du Otxotorena urriaren azken

asteetan eskainiko den saioetan; horretarako dietista bat ekarri behar omen dute, eta hauetaz gain, elikadura orekatua ere mintzagai izanen dute. Leitza bakarrik ez, Goizuetara ere joanen dira, bertakoek dituzten galdereei erantzun bat emateko. Heldu psikologo taldekoen eskutik, etxez etxe pertsona helduak edo ezinduek zaintzen aritzen diren laguntza dituzten ikastaro bat prestatu dute. Ikastaro honetan formakuntza eskaini nahi zaie zaintzaileei, nolakoa izan behar duen komunikazioa eta tratua helduekin berarekin lana egiten dena ikasteko. Batez ere, horrelako ikastaroetan lantzen diren

gaiak langilearen beharrak zeintzuk diren ikusteko izaten dira, eta beraiek aditzen, erantzuten eta ulertzen ikas dezaten balio izaten du, batez ere, komunikazioa eta harremana pertsona adinduekin izaten baita zailena.

Lehenengo asmoak hauek dira, gero beste batzuk etorriko direla aipatzen zuen Junkal Otxotorena, izan ere, Goizuetako gaztetxearekin zenbait tailer eta gauza egiteko proposamenak egin eta jasotzen dituzte eta Leitza, Areso eta Aranon ere izanen dute berriro ere Gizarte Zerbitzuko teknikariaren berri.

→ Eli Belauntzarán

Iruñea

•  
Udazkeneko  
Eskolak abian  
dira

NAFARROAKO GAZTE KONTSEILUAK aurten ere, iaz bezala, Udazkeneko Eskolak izeneko egitaraua prest dauka, eta datozen hilabeteetan hainbat ikastaro egiteko aukera eskainiko du gazte guztientzat. Gazte Kontseiluak biltzen dituen elkarteek eskatuta, aisialdia, osasuna, eskola eta beste hainbat gairi loturiko ikastaro ugari izanen dira urritik abendura bitarte.

Aurten antolaturiko lehenengo ikastaroa urriaren 6 eta 7an izanen da, *Bakerako heziketa*, eta aisialdi elkarteetako begiraleentzat da batez ere. Urriaren 7, 8 eta 9an, landa bizitza dinamizatze lantegia izanen da.


Urriaren beste bi ikastaro egingen dituzte, publizitate eta hedabideei buruzkoa izanen da lehena, eta aisialdi elkarteak ezinduentzako nola egokitu irakatsiko du bigarrenak. Azaroan beste hainbat ikastaro izanen dira, ipuingintza, hies edo autoestimua ingurukoak, besteak beste.

Ikastaroak 17 eta 30 urte bitarteko gazteentzat dira, eta 1.500 eta 5.000 pezeta bitarteko matrikula ordaindu behar da. Iruñeko Gaztediaren Etxean izanen dira gehienak, baina Lizarrako kanpinean eta Lukinen ere egingen dituzte batzuk. Gazte Kontseiluan biltzen diren elkarteek eskatuta abiatu dituzte aurten ere Udazkeneko Eskolak, iazkoen arrakastaren ondoren.

→ Miren Iriarte

irulegitik

JOJO BIDART



## Euskara ezin salbatuz

**E**uskararen erakaskuntza zertan den neurtzeko sasoinan gaude. Ikasturte hastan, beste behin oraino, plazerrekin ohartu gira euskara ikasten duten ikasleek kopurua emendatzen ari dela Iparraldeko eskola publiko edo pribatuko gela elebidunetan edo ikastolatan.

6.000 ikasle inguru kondatzen dira aurten B eta D ereduetan. Aintzinamendu bat badago eta hobel Artoski lanean ari diren burraso, laguntzaile eta erakasleek lana ez da debaldetakoia izan. Baina progresio bera segituz 80 urte beharko ditugu igurikatu Iparraldeko herri bakoitzean hau-

rrek ikastola edo gela elebidun batean euskaraz ikasteko ahala ukan dezaten azkenean.

Bainan denbora ez doa gure alde, gure hizkuntzaren gal-irabaz balantzeak ez dauku zalantzarik uzten. Azken urte hauetan egin inkesta soziolinguistikoek erakusten daukuten euskaradunen adin piramidea eta euskararen erabilpena zertan dagoen ikusirik, arrangurak ez zaizkigu ttipitzen ari. Gainera erakaskuntza guti edo aski euskaraz segitzen dutenen 14 urtetik gorako ikasleek proportzioa izigarri apal egoiten da. Alta euskal adar ezberdineko erakaskuntza segitzen duten ikasleek emaitza onak frogatzen dute urte guzietan eus-

karaz ikasteak ekartzen duen laguntza. Ez da gehiago burrasoeri deus frogatze beharrik bainan Frantses administrazioaren mugari araztea da arazo. Ez dugu sekulan azken urte hauetan bezenbat laudoriorik entzun gizon politikoen ahotik, bainan beti bezala hitzetik obrararako bidea zoin luzea den oharitzen gira. Gela eta ziklo berrien idekitzeko galdea gero eta azkarragoa da burrasoen aldetik, bainan traba ainitz agertzen dira galde sozialari erantzuteko. Nahiz elementu bakarra ez izan, funtsezko erabaki politikoa beharrezkoa dugu gure hizkuntzaren hil ala biziko lasterkaldia ez galtzeko.

ur dai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

# Baigorri ●

## Nafarroako ohiturak Etxauzko jauregian

Herri kulturaren adierazpenak bildu dituzte erakusketa batean

**Nafarroako bizimodua eta ohiturak izeneko erakusketa ikusgai dago Baigorriko Etxauz jauregian. Tresna eta irudien bidez, garai bateko etxea, ospakizun eta lanbideak nolakoak ziren ezagutu daiteke.**



Baigorriko Etxauz jauregia, Erdi Arokoa, garai batean Nafarroako errege-erreginen leinuarekin harreman estua izan zuen. ● EGUNKARIA

**G**ARAI BATEKO ETXEAK ETA etxeke lanak egiteko moduak, ekonomia ereduak, ospakizun eta erritoak, nekazaritza lanak, ogibideak... Horiek guztiak nolakoak ziren, eta bizimodu hori gaur egun zenbateraino aldatu den ikusi ahal da Baigorriin. Bertako Etxauz jauregian Nafarroako bizimodua eta ohiturak izeneko erakusketa paratu dute, eta antzinako bizimodua nolako zen jakiteko garai bateko 77 pieza jarri dituzte ikusgai. Iratxe etnologia

museoaren laguntzarekin prestatu dute erakusketa.

Erakusketa hau Nafarroako herri kulturaren eta ohitura zaharren aniztasunaren adierazle da. Bertan antzinako bizimoduaren alor guztietako irudi eta tresnak dira. Sukalderako, garbiketarako, haurren zaintzeko, ogia egi-

teko eta josteko antzina zituzten tresnak bildu dituzte.

Nekazaritzan ere tresna bereziak erabiltzen ohi zituzten, gaurkoen arras ezberdinak. Goldatzeko, ereiteko eta uzta biltzeko tresna zaharrak bildu dituzte, gehienak Nafarroako mendialdeko base-rrietatik ekarriak. Gainera,

jadanik desagertu diren ogibideetan erabiltako lanabesak ere badira erakusketan; kandelagileek, koilaragileek edo almadiazainek erabiltakoak, esaterako. Ez dira falta, halaber, sinismenekin loturik erabiltzen zituzten gurutze, kandela eta bestelakoak.

### Jauregia bera eredu

Etxauzko jauregia bera ere erakusketarako ekarri dutenaren eredu da; Baigorriko Etxauz jauregia Erdi Aroko eraikina baita, eta hainbat mendetan Nafarroako errege-erreginen leinuarekin harreman estua izan baitu. Erakusketa XVI. mendeko egurrezko estaldura duen gelan dago paraturik, eta armazoi arkitekturaren eredu paregabea da.

Baigorriko Etxauz jauregian iragan ostiraletik ikusten ahal dira antzinako bizimoduak utzitako tresna, lanabes eta irudiak.

→ Miren Iriarte



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

## Panpi Laducheren omenaldia

Panpi Laduche pilotariari igandean Azkainen eginen dioten omenaldia aipatzen du Herria astekariak bere azken zenbakian: «Denek badakite hori, Panpi hogoi bat urtez izana dela pilotari bat arraroa, mugaren bi alde-tan balentria handiak egin dituen pilotari jeindu handikoa, bestalde beti plaza-gizon leiala eta lagunkina. Azkaingo herriak bai eta bere adixkidek muntatzen dute beraz delako omenaldia. Zendako eta zeri buruz? Peio Larrañaga eta holako batzuek garbiki erranen dautzute nola apaila-

tu diren omenaldi horren egiterat: 'Frangotan fama handiko pilotari batzu ohoratzen dira noizbait, denboraren buruan, pilota aspaldian utzia dutelarik, adinean han harat joanak direlarik berdin. Guri iduritzen zauku omenaldi bat egiten-eta aise lehenago hartzen dutela eta ez hoin berant', erran du Larrañagak».

«Egun ederra izanen da mirakuiluz irailaren 24ko hori. Azkaindarrek goretsiko dute Panpi Laduche beren herritarra, eta azkaindar horieri juntatuko dira pilotari eta pilotazale

frango, denek elgarrekin eskerrak bihurtuz Panpi xapeldun handiari. Goizeko 10etan meza izanen da Azkaingo elizan eta ondotik, herriko plazan, apur bat bildutasun Josep Laduche zenaren ohoretan orroit-harriaren aitzinean, eta segidan pilota partida bat Azkaindarrak-bat elkartearen eskutik. 11ak eta erdiak irian, Kiroleta ezkerparetan beste pilota partida bat. Gero, han berean, omenaldia hitzaldiekin. Azkenik, bazkaria kantari eta bertulariekin».

## Pokemon-bola baten barruan...

Atzo bertan entzun nuen azalpena. Ume batek bere aitonari ematen ari zitzaiona. Aitonak, suposatzen dut, aurretik galde-tuko zion umeari ea gora eta behera zebilen «Pokemon» ditxosozko hitz hura zer zen. Umearen erantzuna, antologikoa, aditu nuen. Hona bada: «Pokemon bat...» — argitu zuen, zehaztasun osoz, umeak — «... Pokemon-bola baten barruan dagoen Pokemon bat da». Hara! «Horren txikia eta jada Espainiako Gobernuburuak berak erabiltzen dituen estruktura logikoak erabiltzen», pentsatu nuen. Gero Telediarria ikusi eta den-dena zen Pokemon. «Erregaien prezioak gora egin duenez...» — azaldu zidan aurkezleak — «...erregaia garestitu da». Hara! Pokemon erabatekoa. Hori azalpena hori! Gero Mayor Oreja eta Aznarren pasarte batzuk eman zituzten, azaltzen zer dela-eta bizi garen bakerik gabe Euskal Herrian, eta, haiek ere, azalpenean modu argi batean zehazten zuten:

«Bortizkeria dagoelako». Hau da: Pokemon-bola baten barruan Pokemon bat dago. Egun berean Fernando Savaterrek berak, Alexandriako faro mitologiko berri eta gorpuztuak, gauzak argi azpimarratzearen, honako azalpen gardena eskaintzen zigun: «Batzen gaituztenak Estatutua eta Konstituzioa dira». Egia! Orduantxe konturatu nintzen, filosofo zorrotz honen hitzak irakurtzerakoan, denok gaudela konstituzioaren pean!, barruan!, bizitzen! Eta ni enteratu gabe! (seguru asko etakideek ere, filosofoen artikulua irakurtzen ez dituzten horiek, ez dira orain arte jabetu Fernando Savater eta bere moldeko jendearekin ze punturaino batzen gaituen konstituzioak!).

Orduantxe ohartu nintzen Bolobof-bola baten barruan dagoen Bolobofa ez dela Pokemon bat!, Bolobofa baizik! Hau da: Sri Lankako konstituzioak ez gaituela batzen! Ostia!. Ze ona! Hemengoa, hau da: Espainiako delatzen gaituena! Joder! Klaro! Orain dena ikusten dut argi!

Hausnarketarako, arrazionalizatzeko, estruktura logikoak gauzatzeko krixton lanabesa da hau! Jarraidazue: dugun legedia da daukagun legedia bakarra. Ez dugun legedi hori ez dugun legedia da. Bortizkeria bake eza da. Zer da bakea? Bortizkeria eza. Eta abar eta abar... Hau aurkikuntza: Pokemon bat Pokemon-bola baten barruan dagoen Pokemona da! ●

# Autorik Gabeko Eguna, gogoeta egiteko

Udalaren egitarau ofiziala eta kritikoaren aldarrikapenak izanen dira kaleetan

**Europako beste hainbat hiritan moduan, Iruñean ere Autorik Gabeko Eguna da gaur. Autoa zentzu handiagoaz erabil daitekeela ikusarazi nahi du Iruñeko Udalak, baina zenbait talderen arabera garraio ereduaren aldaketa urte osoan bultzatu beharra dago.**

EUROPAKO INGURUMEN ZUZENDARITZAK deituta, Autorik Gabeko Eguna izanen da gaur Iruñean, eta baita Euskal Herriko eta Europako beste hirietan ere. Iruñean, auto partikularrek ez dute Alde Zaharreko kaleetara sartzerik izanen, ez eta lehenengo Zabalguneko zenbaitzuetara ere. Alde Zaharreko bizilagunek autoa doan utzi ahal izanen dute zezen-plazako, Karlos III.a eta Aduanaren Txokoko aparkalekuetan. Garraio publikoa erdira merkatu dute. Bizikletak uzteko aparkaleku bereziak zabalduko dituzte Sarasate pasealekuan eta Gaztelu eta San Frantzisko plazetan. Eta hori guztia hornitu eta alaitzeko, ekintza eta ekitaldi bereziak prestatu ditu Iruñeko Udalak.

Atletismo, txirrindularitza eta beisbol txapelketak izanen dira arratsaldean, ginkana ere bai, eta Alde Zaharreko eta Zabalguneko dendetan erosketak egiten dutenen artean 30 pare patin zozketatuko dituzte. Eta eguna amaitzeko, arratsaldeko 20:00etan Pamplonesak kontzertua emanen du Udaletxe plazan. Hori guztia Europako Ingurumen Zuzendaritzak deituriko Autorik Gabeko Egunari erantzuna emateko.

Autorik Gabeko Egunaren aurkezpenean Iruñeko Ingurumen zinegotzi Juan Luis Sanchez de Muniainek honela esan zuen: «Autoa zentzu handiagoz erabiltzen ahal dela erakutsi nahi diegu hiritarrei». Haatik, Iruñeko Udalarren nahia benetakoa denik ez du ematen.

**Irailaren 23tik aurrera garraio bide ereduak aldatzeko eginahalak abian jarri ezean, gaurko eguna ospakizun hutsean gelditzen bada, zentzurik gabeko ekimenak izanen dira gaur egindakoak.**

gaurko eguna ospakizun hutsean geldituko delako eta bihurtik aurrera Iruñerriko trafiko arazoek bere horretan jarraituko dutelako susmoak hartu baitituzte askok.

Hiri txikia da Iruñea, eta bizikletaz ibiltzeko egokia oso. Baina bertakoek gaur egungo garraio ereduak eta gehiago egiten dute ingurumenaren aurka. Ohitura horiek aldatzea zaila da, eta are zailago instituzioen laguntzarik gabe, «baina aldaketa behar-beharrezkoa da», Pello Ariz Iruñerriko Txirrindularien Elkartearen kideak esan duenez.

Gaurko egun ofizialaren aurrean, kezka larria eta kritika gogorra plazaratu dute Iruñerriko zenbait taldek: Alde Zaharreko bizilagunen elkarteak, Hiritarren Ekimenak, Ekologistak Martxan taldeak, Eguzkik, Gurelurrek, AEK-k eta Iruñerriko Txirrindularien Elkarteak berak.

Arizzen esanetan, Iruñeko Udalak Europatik horrela agindu diotelako prestatu du Autorik Gabeko Eguna. Bihartik aurrera garraio bide ereduak aldatzeko neurriak abian jarri ezean, eta gaurko eguna ospakizun hutsean uztekoan, «zentzurik gabeko ekimenak izanen dira gaurkoak».

«Iruñeko Udalak Europar nagusi den idetaren aurka ari da erabat», Iruñeko kolektibo horien ustez, «Irudi kanpaina ofiziala egiten

bitartean, aparkaleku pribatuak egiteko proiektu erraldoiak egiten ari dira; Iruñerria auto pribatuaren arabera planifikatzen ari dira bizitzeko hiri egokia prestatu beharrean». Iruñerrian gero eta auto partikular gehiago erabiltzen dira. Trafikoko buruzagitzaren arabera, Nafarroa osoan 321.642 auto aude, auto bat 1,64 biztanleko; banakana bakoitzak bere autoa hartzeko ohitura gero eta zabalduago dago, eta trafiko arazoak

## Egitarauropioa eta aldarrapenak

GAURKO EGUNAK EUREN ESKAERAK KALERATZEKO izanen duen indarrak oharturik, bertan parte hartzea erabaki du Iruñerriko Txirrindularien Elkarteak, baina modu kritikoa betiere. Horregatik, beren egitaraua prestatu dute gaurko, eta aldarrikapen zehatzak eginen dituzte.

Hiru helburu zehatz lortu nahi ditu elkarteak gaurko egunean. Autorik Gabeko Eguna hilean behin bederen egiteko eskatuko dute, «Europako zenbait hiritan egiten deri bezala»; bidegorriak presta dezatela eskatuko dute; eta trafikoa auzo eta herri guztietan moztu dezatela.

Hori guztia eskatzeko ekintza bereziak eginen dituzte gaur. Elkartearen eta bizikletaren inguruko informazioa banatzeko, kamisetak saltzeko



Gehiegizkoa da autoaren erabilera Iruñean, eta, hiri handietan bezala ez izan arren, trafiko arazoak izaten dira askotan. ● IÑAKI VERGARA

Jarriak dira zenbait leku eta ordutan. Baina Iruñeko Udala autoaren aldeko apustua egiten ari da behin eta berriz, gero eta aparkaleku pribatu gehiago eraikitzen.

Iruñerriko Txirrindularien Elkartearentzat gaurko eguna «usurpazioa» izan da. Haiek 1997tik hirian bizikletaz ibili ahal izateko eta autoaren erabilera murrizteko lanean ibili dira, baina ez dute sekula lortu Udalarren laguntzarik. «Gaurko egunarekin bat egin dugu, baina argi dugu Europarekiko irudi kanpaina dela», esan du Arizek. Bere esanetan, garraio bide ereduaren arazoa benetakoa da, eta lehenbailehen egin behar zaio aurre; horregatik,

gaurko eguna aurrerantzean luzatu ezean, «ez du deusetako balio izanen».

**Bost urterako planari erantzunik ez** Iruñerriko Txirrindularien Elkarteak aspaldian ari da garraio bide eredu aldatzeko eta bizikleta bultzatzeko eskatzen. Pello Arizek esan duenez, aldaketa hori gertatzeko «benetako plana martxan jartzea beharrezkoa da, jendeak kontzientzia hartzea ezinbestekoa baita».

Eta ideia hori aurrera ateratzeko, bost urterako plana prestatu zuten 1998an Iruñerriko Txirrindularien Elkartearen kideak. Hamar urteren buruan bizikletaren erabilera %1,2tik %10era igotzeko plana prestatu zuten, eta alderdi politiko guztiekin eta zenbait elkarte eta instituzioekin bildu ziren plan hori martxan jartzeko eskatzeko.

Elkartearen kideen arabera, plana ekonomikoki bideragarria da erabat, eta alderdi guztiak bat etorri ziren horrekin. Orduan hona planaren inguruan ez dute berririk izan. «Borondate politiko falta nabarmena dago», Arizzen esanetan, «eta, horrela, gaurko egunak ez du balio». Hala ere, bertan parte hartzeko deia egin zuten: «gaurko eguna bihurtik aurrera garraio ereduak aldatzeko ahaleginetan hasteko oinarri izaten bada bederen, pozik egonen gara».

→ Miren Iriarte



Iruñeko kale askotan eta ordu batzuetan oso arriskutsua da bizikletaz ibiltzea. ● IÑAKI VERGARA

● IÑAKI VERGARA



## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

### Txomin Jaka-Kortajarena: olerkari eta itzultzailea

**Txomin Jaka-Kortajarena apaiz berastegierra 36ko gerra aurretiko olerkari handien artean egoteaz aparte, itzultzaile fina izan zen Argentinako erbestean, itzuli zuen lanik inportanteena Hernandezen *Matxin Burdin* izan zelarik.**



**T**xomin Jaka-Kortajarena 1906ko abenduaren 19an jaio zen Berastegin. Andoaingo eta Gasteizko apaizgaitegietan ikasi ostean, 1932an apaiztu zuen Mateo Mujika gotzainak. Bere lehenbiziko apaiz lanak Nafarreten egin zituen, urtebe-tea egin aitzin Aiala aldeko Salbantonen ber lanen jardun-nean segitzeko. Gerra aurretiko urteetan eman zuen ezagutzera Jaka-Kortajarenak bere burua euskal poeta, Euskaltzalekoek-eta eratu Olerki egunetan aurkeztu poesia ugari-  
ren bitartez bereziki, egun Eusko Olerkiak liburu segidak interesatu dagoenari aski ongi eskaintzen dizkiona. Bere lehenbiziko lanak, ordea, *Gymnasium* eta *Argia* aldizkarietan ageri ziren gutxi gehien. Horietarik zenbait, bestalde, aipatu tokietan ez ezik baita *Yakintza* aldizkarian ere 1930-1935 bitartean agertu ziren. Azkenik, olerki saldo eder horrekin bilduma osatu zuen, *Irri bertsoak*, Donostian 1935ean karrikaratu zena. Herri kutsuko lanak dira berastegiar honen olerkiak, bertsolaritzaren teknikarekin osatuak hein handi batean bederen.

36ko gerra ankerretik ihesean Argentinara egin zuen eskapi gure poetak. Hantxe apaiz lanekin segitu zuen, Araban bezala, Monez Cazon izeneko hirian, eta modu berean, literatura ez zuen largatu. Galdutako euskal bizitzak lehen baino sakonkiago kitzikatuturik, *Euzko Gogo*a zein *Boletín Americano de Estudios Vascos* argitalpenetan eman zion jarraipena bere ekoizpen poetikoari, zenbaitetan hitz neur-tuko lerroekin batera haiek are hobekiro ulertzeko azalpenak eskaintzen zituela. Francoren diktadura zertxobait laxoturik, berriz ere Euskal Herriko zenbait argitalpenetan hasi zen argitaratzen; esate baterako, *Goiz-Argi* edota *Karmel* argitalpenetan. Urteekin,

geroz eta euskara garbiaren defendatzaile sutsuago bilakatu zen, diogun honen adibidea Euskarazaintzako paperean 1988an argitara eman zituen hainbat olerki.

Edozein modutan ere, Jaka-Kortajarena ez zen izan euskal olerkaria bakarrik, eta euskararen alorrean beste lan eder bat egin zuen eiki; itzultzaile-arena, hain zuzen ere. Argentinan zegoela Jose Hernandez hango olerkariaren *Martin Fie-*



*rro* lan eder bezain konplikatua ezagutu, irakurri, gozatu eta baita euskaratu ere egin zuen osoki. *Matxin Burdin* 1.193 ahapaldiko gautxo-poema Buenos Airesko Ekinekoek eman zuten argitara, Ataungo Bonifazio kaputxinoaren hitzaurre batekin. Honetan ataundarrak ez zigun ziria sartu «Alik obekie-na euskaraturik ere, *Matxin Burdin* ez da inoiz Martin Fierro berbera izanen» esaten digunean; izan ere, arras lan zaildua eta konplexua baita Hernandezek egin zuena, Panpako gautxoaren hizkuntza berezian egina baita, arras testu

zaildua gaztelaniazko irakur-lerik trebatuenarendako ere. Alta, Berastegikoaren lana ez da filusea. Jose Hernandezek berak euskaldunekin hartu-eman urriak izan bide zituen bere bizitzan, eta nonbait ere, euskara apurrak bazekizkien. Txomin Jaka-Kortajarenaren aita Argentinan ibilitakoa zen behar-lanetan, eta semeak, hara joan zenerako, Argentinaren berri maratza bazuen eduki. Itzulketa, gainera, nahikoa berandu agertu zen, 1972an hain zuzen ere, ordu-rako Berastegiko apezka beste argentinatar peto-peto bat zate-keelarik. Hernandezen liburu-ia itzuli izana, bestalde, ez zen erabaki hutsal izan, eta lehenbiziko argitalpena-  
ren mendeurrenaren aitzakiaz jelki zen Ekinen eskutik ere.

*Matxin Burdin* bere itzulpenik hoberena bada ere, esan behar da Jaka-Kortajarenak itzulpen lan gehiago egin zituela horren aitzinetik. Iberoko Eban-gelistaren *Ami vasco* kate-txima jeltzalearen euskarazko testua 1958an atera zuen, eta zenbait urte beranduago, 1963an es-preski, Enrique García Vellosoaren *Gernikako Arbola*. Horiez gainera, euskara-erdara hiztegi bat ondu zuen. Argentinatik bueltan, adinean sartuta eta sorterrian behin betikoz kokaturik, *Erlezaintza* izenburuko saioa eman zuen argitara 1988an, 2.000 orrialde baino gehiagoko liburutzarra. Kardaberaz Bazkunakok atera ziotena. Txomin Jaka-Kortajarena 1993an hil zen, eta azken egun arteraino izan zitzaigun euskal idazle, ekintzak leku-ko: hil hurren zegoela, 90eko hamarkadaren hasieran hortaz, *Bizitzan bi goiasmo* liburu autobiografikoa eta *Rh ezezkorra euskaldunetan* ikerketa eman zituen argitara.

etorri ahalean

PatziKu Perurena



### Denbora leku

**G**OGOAN DUT ARRA-sateko izpiritu «ko-peratibo demokrati-ko optimista» hartan nenbilela, nola hasi nintzen neure hizkuntza ikasten. Baina neure hizketaren graziaz ohartzan hasi orduko, laster nuen gainean kirats «metodiko progresista» nazkantea. Zerbait handi ipini behar eta, «Glotodiktika Ikastaroa» ipini ziotela uste dut izena, eta bazirudien gradu ikaragarria ematen zio-la ikasleen gogo gizajotuari.

Maleta beltz batekin etor-tzen zen gure «metodiko pro-gresista». Aurren aurrenekotz, atera bere maleta zokotik eta, «despertadore» handi bat ipin-tzen zuen mahai gainean, kuerda eman ondoren. Guri «glotodidaktikako» lezio ema-tera zinez eta gogoz heldu zela adierazi nahiko zigun nonbait, ez zela, beste gizajook bezela, eskumuturreko erlojuari begi-  
ra distrahituko segundo batean ere, eta hartara ez zuela su-matuko gutako inork gogoga-be ari zenik edo...

Halako batean, bere lezio «metodiko harrigarrian» ari zela, erlojuak turrina hasten zuen bezain pronto, lasterka joan eta itzali egiten zuen. Hu-raxe izaten zen denak par mut-tur bat egiten genuen aldi ba-karra, eta hartantxe bukatzen zuen bere hitz jario «sistemat-  
ikoa» bapatean. Edozeinek esa-nen luke, denboraz gaindiko maisu zuhurra zela hura.

Baina neretzako juxtu kon-trakoa erakusten zuen gizajoa-k: denboraren lerro xuxen baten harrak jana ziola gogoa-ren barrango mami ugari gu-zia. Segituan eman nion traza: oso goiti joanen zela gizarteko eskailera ofizial zurietan ba-rrena. Ez nebilen hainen oker: gaur PNVko diputatu baita Madrilen, Iruñean HBko libe-ratu edo Lasarten Egunkariko zuzendari izan litekeen bezal bezalaxe. Honetan ezin dut inor bereiztu: izpiritu metodi-

koak gizakera ezberdin usteko guziak iresten baititu. Denak igoalak neretzako.

Gogo galdu metodiko eta gogo bizi ugari baten artean, nolabait esan, denborarekiko jarrera horixe da nik aurren aurrena nabaritzen dudana. Baina nola adierazi abstrakzio iheskor hori? Bada artzain ipuin klasiko bat gure artean hagitz ezaguna dena. Lehen-goan aditzen nuen Erramun Martikorenaren ahotik. Alegia, egunaren buruan «bertan goxo, bertan goxo» esanez bazkatutako ardiak, bapo aseak itzultzen omen direla iluntze-an bordara; eta «haratago eta goxoago, haratago eta goxoago» esanez dabiltzanak, goseak galduak eta alfer alferrik nekatuak. Horra hor, gizakera eta denbora modernoko ardi klaseak eta besteak. Bereiz zerrorek.

Bai, behiala ehiztari izan gi-nen, zerbaiten aurrean, espa-zioa kasik bere osotasun uga-rian biziz. Hurrena laborari geldi, zerura begira, beti egu-raldia (denbora) aitzakia negar-rez, espazioaren ugaritasun guzia kasik eraztun hutsera agortuz. Eta atzenerako gizon metodiko, denbora lineal hut-sean zeharo galduak. Eta orain, nolako patxada du espa-zioak gure gogoan? Hutsa-ren hurrengo. Badirudi den-boraren bilakaerak irentsi di-gula osotara. Nik behintzat, gogo espaziala duen jenderik apenas sumatzen dudana inon. Metodoak, sistemak, denbo-rak alegia, irentsi du gure go-goaren ugaritasun espazial osoa. Hala salatzen dit benpe, munduan «leku» huts izan nahiko lukeen adixkide poeta horren sufrimen modernoak.

Bai, gizona noizbait espa-zioak bizi eta denborak hiltzen zuen; gaur ordea

denborak akatua, espazio-an bizi bila dabil. Baina, leku ederreko borda berritu bat, txalet bat, denbora huts zaiz-kio, halere, gogo akitu honi.

### Ziria

• Motxorrosolo •

#### Oinarri sendoak

**H**UTSETIK SORTURIKOAK URRI GUREAN. AZKEN URTEOTAKO ezusterik handienak oinarri sendoen jabe ziren. Egunduz, lu-zea izanen den prozesu baten aitzinean, oinarri sendo horiek guz-tien helmuga ahultzea ekarriko duen gertaera, inondik ere ahul-tzea ekarriko duen gertaera. Alta, azpitik doana bestelakoa diru-di. Une erabakigarria norabide aldaketa horietan izaten baita.

# Miriam Arregi

ALDEZAR ELKARTEKO KIDEA

## «Gazteek gazteentzat egindako kanpaina da»

Sanfermin Txikito bestak ospatuko dituzte asteburuan Iruñeko Alde Zaharreko bizilagunek.

Uztaileko sanferminetan bezala, karrikak zaborrez beteko dira bestaren ondorioz, eta, egoera horri aurre egiteko eta besta garbiago eta osasuntsuagoak aldarrikatzeko, kanpaina bat jarri du martxan Aldezar elkarteak.



● CRISTINA BERRAIN

**A**LDEZAR ELKARTEKO OSASUN Batzordea arduratu da kanpainaz, eta batzorde horretako kide Miriam Arregi azaldu digu beren helburua gazteekin lan egitea dela, modu atsegin eta dibertigarrian hiria zaintzen ikasi ahal izateko.

### ■ Zertan datza zuen kanpaina?

Karrikan etxean bezala leloarekin, pegatinak eta kartelak egin ditugu, euskaraz eta gaztelaniaz, eta Alde Zaharrean ibiltzen diren gazteei asteburuan Sanfermin Txikito jaiak ospatuko direla helaraztea da gure asmoa. Jendeari Alde Zaharraz gozatzen erakustea da gure helburua, ingurua eta jendea errespetatuz eta karrikak zikindu gabe gozatzen erakustea. Alde Zaharra inguru osasuntsua izan dadin nahi dugu, eta, horretarako,

denok elkarrekin egin behar dugu lan.

### ■ Nori zuzendua dago?

Gazteek gazteentzat egindako kanpaina da. Ez dugu inoren kontra egin nahi, denon artean konponbide bat bilatu baizik. Modu dibertigarri batean gazteak arazoaz jabetzea nahi dugu. Adibidez, plastikozko katiluak banatuko ditugu, gazte bakoitzak ontzi bera erabil dezan gau osoan. Modu horretan, gauzak bererabiltzeko ohitura zabaldu eta kaleak garbi edukitzeko beharra nabarmendu nahi dugu.

### ■ Sanfermin Txikitorako prestatu duzue kanpaina; baduzue gero ere jarraitzeko asmorik?

Bai. Batetik, eskoletako haur eta gazteekin eta hainbat elkarterekin lan egin nahi dugu, eta haien bideo bat prestatu dugu —euskaraz eta

gaztelaniaz—, besta egiten duten gazteen jokabidearen ondorioz Alde Zaharra asteburuetan zein egoeratan gelditzen den ikus dezaten. Ohiturak aldatzeko ordua dela irakatsi nahi diegu.

### ■ Kanpaina antolatzen duzuen lehen aldia da; arra-

### kastatsua izanen dela uste duzue?

Nik uste dut baietz, gazteen artean prestatutako kanpaina delako. Oraingoan, elkarte-ko gazteen artean, behintzat, oso harrera ona izaten ari da eta materiala ia agortu egin zaigu. Ez da inoren kontrako

borroka. Alde Zaharra modu atsegin batean zaintzeko proposamena baizik. Alde Zaharra guztiona da eta guztion ardurua da zaintzea.

«Kanpainari jarraipena eman nahi diogu, eta ikastetxeetako haur eta gazteekin eta hainbat elkarterekin lan egin; haien bideo bat prestatu dugu, euskaraz eta gaztelaniaz»

### ■ Aisialdirako heziketa elkarrekin egiten duzue? Zer nolako ekitaldiak antolatzen dituzue?

Batez ere haur eta gazteekin egiten dugu lan. Era askotako ekitaldiak egiten ditugu. Batetik, hezkuntza lantzen dugu; haurrei ikasketetan aurrera egiteko laguntza ematen diegu, badugu ludoteka bat eta kirola ere lantzen dugu. Bestetik, aisialdirako ekitaldiak prestatzen ditugu eta dantza ikastaroak ematen ditugu, besteak beste. Osasunaren alorra ere lantzen dugu. Horretaz gain, Alde Zaharreko bizitzan parte hartzen dugu ahal dugun neurrian.

→ Eudurne Elizondo

## EUSKALERRIA IRRATIAN ere OSASUNA

## PRIMERAN !!



2.000 - 2.001eko  
denboraldian  
Osasunaren Sadarreko  
norgehiagoka guztiak  
zuzenean eta PRIMERAN !!

### AUPA OSASUNA!!!

Iruñerrian 91.4 FM

Sakanan 107.0 FM



**MOSKI JATOR**  
ERTAROAN

Betidunik  
eta  
Betirako



Lau Famili artean banatu dute Den dena!

Okerrena egoera honek gmaiezina ematen duela da. Nafarroman XX. mendean poteretsu segituko dutela...

Del Burgo tarrak!!



## Nafar Kronika

Aitor Arotzena

### Nekazariak karrikan, garraiolariak... laster

**H**au irakurtzen duzueneko Nafarroako nekazariak karrikara atereak izanen dira, gasolioaren garestitzearen aurka. Gezurra badirudi ere, normalean zakurra eta katua bezala ibiltzen diren EHNE eta UAGN sindikatuak bat egin dute afera larri honen inguruan. Izan ere, saskela zulatzeak min ematen baitiete berdinberdin nekazari guzietan... baina baita garraiolarietara ere.

Mikel Petrirena Nafarroako EHNEko lehendakariak erran duenez, iazko maiatzetik aurtengora bitartean B gasolioa %50 garestitu da, gainontzeko errekin izandakoaren gaintetik. Eta, gainera, igoera ez da gelditu, abuztu amaieran beste lau pezeta garestitu baitzen.

Nekazariak, garraiolariak... ezin dituzte neurri horretan prezioak igo. Lehendik irabazi mixerableak dituztenek beraien irabaziak erabat murriztuak ikusten dituzte. Bien bitartean, betikoen irabaziak handituz doaz etengabe. Repsolek, adibidez, publiko egin du bere irabaziak %278koak direla, eta Estatuak, bestalde, zergen bidez (hidrokarburoenak eta BE-Za), aurten 84.489 milioi pezeta jasoko ditu.

Kopuru horiek ikusita, norbait harritzen al da nekazariak karrikan ikusteaz? Norbait harrituko al da garraiolariak gurean ere gasolindegia ixten dituztenean? Europa osoan hartu den bidetik—egiatan harrigarria Britainia Handian gasolio litroaren truke ordaintzen dutena—hemen ere mobilizazioa ez den bertze biderik gelditzen al zaie sektore hauei? Bidezkoa al da mahaiaren inguruan eztabaidan jartzen direnean, alde batek milaka milioiko irabaziez solastea eta bertzeak bizimodu duin bat izateko eskubideaz? Indarra eta bortxa erabiltzen dutenak nekazariak eta garraiolariak izanen dira gero, beraien bizian defentsan ateratzen direnean.

Duela urte batzuk Europa genuen arazo guzien konponbidea, baina euroaren behar-kada eta gasolioaren aferak ikusita, badirudi Europatik etorriko zaizkigula ixtantean arazo gehienak.

## gure aukerak

### MUSIKA

► **Atarrabia:** Gaur, 20:00etan, Zorongo taldeak *Almazara* izeneko kontzertu-rapsodia eskainiko du La Presentacion ikastetxean.

► **Atarrabia:** Gaur, 22:00etan, Kubako La Solucion zazpikotea Udaletxe plazan ariko da.

► **Iruñea:** Gaur, Aldapa plazan, Dank iruindarrek eta Inadapats katalanek joko dute 00:00etan.

► **Iruñea:** Gaur, 00:30ean, Etzakit taldea Nabarrerria plazan izanen da.

► **Iruñea:** Bihar, 22:00etan, K-Haba taldeak Jai Alai gaztetxean kontzertua eskainiko du.

### ERAKUSKETAK

► **Burlata:** Joaquin Azkarateko kultura aretoan, aeromodelismo erakusketa ikus daiteke hilaren 27a arte, aste-artetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara, eta igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

► **Iruñea:** Esther Tapiasen olioak hila bukatu arte daude erakusgai Ormolu aretoan (Paulino Caballero, 42).

► **Olorogi:** Bertizko jaurerrian *Euskal Herriko antzinako bizimodua postal irudietan* erakusketa ikus daiteke urriaren 15 arte, 10:00etatik 14:00etara, eta 16:30etik 20:00etara.

► **Iruñea:** Molmar galerian (Curia, 18), euren fondoan erakusketa dute (Resano, Salaberri, Julio Pablo, Agorreta, Belzunegi...). Lanegunetan 11:00etatik 13:30era eta 18:00etatik 20:30era.

### IKASTAROAK

► **Zizur Nagusia:** Kultura Patronatuak hainbat ikastaro antolatu ditu: dantza, plastika, buztina eta puxikak haurrentzako, antzerkia, bertsolaritza, malabarismoak eta informatika gazteentzako; eta informatika, argazkigintza, ardo dastatze, lore lehorrak, ondoak eta perretxikoak, sukaldaritza begetarianoak, yoga, zeramika... helduendako. Gaur da izena emateko azken eguna.

► **Iruñea:** Mendi Federazioak antolatuta, hilaren 30ean eta urriaren 1, 7 eta 8an kirol eskaladako ekipamendu tekniken gaineko ikastaroa egingen dute. Seigarren maila da eskatzen den gutienekoa. Informazioa eta izena ematea 948-224683 telefonoan.

► **Atarrabia:** Udalak haurrentzako espresio plastikoa, pintura eta dantza ikastaroak antolatu ditu euskaraz eta gaztelaniaz. Izena emateko epea hilaren 29an bukatzen da.

### BESTELAKOAK

► **Iruñea:** Hizkuntza Eskolak arabiera, japoniera, portugesa eta errusiera ikasteko klaseak sortu ditu. Programak eskolako atezaindegian eskura daitezke.

► **Donostia:** Deustuko Unibertsitateko Ignacio de Loyola Institutuak milioi bateko beka emanen du *Karlistadak eta jesuitak* gaia ikeritzeko. Eskaera orria aurkezteko epea hilaren 30ean akitzen da. Informazio gehiago 943-326600 telefonoan.

● EGUNKARIA



### Orain bai

Hiru aste eman ditugu oporrak bukatu direla erraten. Orain ez dago zalantzarik. Langileak lanean dira; estudianteeek (ikasten ez duenari ezin ikasle deitu) eskoletan gaitzen dituzte orduak; haurrek bartz ordu ematen dituzte telebisiorearen aitzinean; futbolariak zelaietan milioiak patrikaritzen dituzte barra-barra; Kubako laguna Kuban gelditu zen; eta hondartzako hondarra, ba hortxe dago, hondartzan. Eta bestak?, non dira bestak? Tira, patrioen omenezko besta guti gelditzen dira. Baina badira bertzelakoak. Zubiak, oi zubiak!!! Argazkiko haurrak, bestaren erdian murgildurik zegoen arren, oporrak bukatu eta ondoko zubia zuen gogoan, urriaren 12koa hain zuzen. Zubiak, oi zubiak!!!